

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Hutsargi ehorztetxea bizitza eta heriotzaren arteko lotura harmoniko eta intimoa bilatzen duen espazio bat da. Hileta-zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, bakoitzaren sinesmen eta tradizioak errespetatuz, heriotzari buruzko kontzeptuari ikuspegi berri bat emanez. Talde profesional eta espezializatuak heriotza bezalako une zailean laguntza emozionala eta espirituala eskaintzen du, beti ere bezero bakoitzaren beharretara egokituz.

Gure proposamena edozein pertsonari zuzenduta dago, adin, erlijio edo kultura kontuan hartu gabe. Bezero bakoitzaren baliabideetara egokituko gara, haien nahiak errespetatuz eta proiektu pertsonalizatua eskainiz. Gure helburua heriotza prozesua lasaitasunez eta duintasunez bizitzeko laguntza ematea da. Horretarako, zerbitzu integralak eskaintzen ditugu, hileta-zerbitzu tradizionalak zein alternatiboak barne hartuz, beharrezkoak diren alderdi guztiak estaliz. Gure nahia da gure bezeroek bizitza osoan zehar izan dituzten balore eta sinesmenekin bat datorren agur bat izan dezaten.